



# Osasun Eskualde Oinarrizkoa

## San Jorge / Sanduzelai



Observatorio de Salud Comunitaria de Navarra  
Nafarroako Osasun Komunitarioaren Behatokia



### 1. Argibide orokorrak

Biztanleria (2020):	11.994 Emak.: %50,5 Giz.: %49,5
Batez besteko adina:	Emak.: 44,1 Giz.: 41,6
Jaiotza tasa:	‰7,9
Gazteen mendekotasunaren indizea:	% 24,7
Zahartzaroko mendekotasun indizea:	%32,7
Atzerritan jaiotako biztanleak:	%28,6
Bizi itzaropena:	Emak.: 84,6 Giz.: 80
Zabalera:	1,52 km <sup>2</sup>
Zer Eskualdetakoa den:	Eremu Zentrala ( <a href="#">ikus mapa</a> )
Udalerriak: Pamplona/Iruña (distrito-sección: 07-010 a 07-014 y 07-017 a 07-020)	

### 2. Komunitatea eta osasuna

*Faktore soziodemografikoak eta ingurumenekoak.* Sanduzelaikoa da pobrezia larriaren arrisku-tasarik handiena duten Osasun Eskualde Oinarrizkoetako bat (% 13,1), eta 20 urtetik beheragoko ama duten jaioberrien portzentajerik handienetako bat ere badu (% 7,3). Gainera, langabezia-tasarik handiena duen nafar eskualdea da (% 16,3), eta DBHko graduatutitulurik gabeko 18tik 24 urtera arteko gazteen portzentajerik handiena du (% 4,1). Iruñerriko basoazalerarik gabeko lau eskualde oinarrizkoetako bat ere bada (%0,0).

*Osasunari dagozkion emaitzak.* Sanduzelaiko Osasun Eskualde Oinarrizkoa emaitzarik onenak dituzten eskualde oinarrizkoen % 25,0ren artean dago datuotan:

soilik amagandik edoskitzen duten 6 hilabeteko haurrak (%42,0), antsiolitiko eta antidepresiboen kontsumoa gizonetan (% 8,0), HbA1c-a neurtzen duten diabetikoak (% 81,9) eta TA neurtzen duten hipertentsiodunak (% 53,9). Aitzitik, emaitzarik okerrenak ditu beste hauetan: 2. motako diabetesa diagnostikaturikoen prebalentzia (% 6,8 emakumeetan eta % 9,8 gizonetan), kronikoen estrategian lehenetsiriko 3 patologia edo gehiago dituztenak (% 4,7 emakumeetan eta % 8,3 gizonetan) eta pisu gehiegi duten 6tik 9 urtera arteko haurrak (% 34,3 nesketan eta % 36,1 mutiletan).

*Inkesta-adierazleak.* Hurrengo emaitza doitu\* hauek Eremu Zentrala deituriko eskualdeari dagozkio (LAP zonifikazioa); Etxabakoizko eskualde oinarrizkoa eskualde horretan dago. Eremu Zentralean emaitzarik onenak adierazleotan daude: 15 urte edo gehiagoko pertsonen gehiegizko pisua (% 32,7 emakumeetan eta % 52,6 gizonetan), emakumeen fruta- eta barazki-kontsumoa (% 39,1) eta gizonen alkohol-kontsumoa (% 25,3). Aitzitik, datuotan daude emaitzarik okerrenak: eguneroko tabako-kontsumoa emakumeetan (% 13,1) eta ongizate orokor txikia (% 27,8 emakumeetan eta % 21,4 gizonetzkoetan). \***Oharra:** Inkesta-adierazleak eta hala eskatzen duten beste adierazle batzuk sexuaren eta adinaren arabera doitu dira, eskualdeen arteko konparazioa egin ahal izateko. Adierazle gordinak hurrengo orrialdearen behealdean agertzen dira.


#### Osasunerako baliabideak

Komunitatean badira osasunerako zenbait aktibo ahalmena dutenak norbanakoek, komunitateek eta herriek osasuna eta ongizatea mantendu eta sortzeko duten gaitasuna indartzeko (salutogenesia).

-> [Ikus eskualdeko aktiboen mapa](#)

## 3. Adierazle laburpena

Ondoko irudian agertzen dira adierazle sorta bati dagozkien eskualdeko balioak (puntu gorria) Nafarroako batez bestekoarekin alderaturik (barra bertikala) eta Nafarroako eskualde oinarrizkoen multzo osoarekin alderaturik. Adierazleen deskribapen zehatzagorik nahi izanez gero, haien [banakako fitxak](#) ikus daitezke Behatokiaren webgunean.



**Adierazle iturria:** 1: Biztan. Mug. Nat.; 2, 5-6: SIPNa (Nafarroako Biztanleriaren Sistema Integratua); 3: Biztan. Akt. Udal. Estat; 4: Errenta. Estat; 7: SIGPAC (Nekazaritzako Lurzatzen Informazio Geografikoko Sistema); 8, 23-26, 29-30: Oinarrizko osasun-laguntza; 9-20: ESYCV (Gizarte eta Bizi Baldintzen gaineko Inkesta); 21-22: NOPLOI; 27-28: Farmazia prestazioa

# Nafarroa Atlantikoaren adierazleak (9-20) LAP zonifikazioa (NASTAT). Irudian adierazitako balioen kopurua: 4.

\* Nabarmen desberdinak ( $p < 0,05$ ) Nafarroako emaitzarekin alderatuz (bizimodu, morbilitatearen eta osasun sistemaren adierazleetarako eginko kontrastea).

**1.** Urteko batez besteko ugalkortasun-tasa berariazkoa (%) 14 eta 19 urte bitarteko emakumeetan; **2.** DBHko graduatu-titulurik edo haren baliokiderik gabeko 18tik 24 urtera arteko gazteen %; **3.** Langabetuen % biztanleria aktiboaren aldean; **4.** Bizikideen errentaren baturak pobrezia larriaren atalasetik behera egiten duen etxeetan bizi diren pertsonen %; **5 eta 6.** Bakarrik bizi diren 80 urte edo gehiagoko pertsonen %, adin horretan familia-etxebizitzetan bizi diren gutzien aldean; **7.** Baso-azalaren %; **8.** 170-190 egunetara soilik amagandik edoskitzen duten haurrak %; **9 eta 10.** Frutak eta barazkiak egunero jaten dituzten pertsonen % doituia (t. gordina: emakumeak 40,4 eta gizonak 20,4); **11 eta 12.** 15 urteko edo gehiagoko sedentarioen % doituia: ariketarik egiten ez dutela diote (t. gordina: emakumeak 20,1 eta gizonak 14,5); **13 eta 14.** Astean 100 g alkohol baino gehiago hartzen dutenen % doituia (t. gordina: emakumeak 6,3 eta gizonak 34,5); **15 eta 16.** Tabakoa egunero hartzen duten 15 urte edo gehiagoko pertsonen % doituia (t. gordina: emakumeak 13,8 eta gizonak 15,3); **17 eta 18.** Ongizate orokor baxua duten 15 urte edo gehiagoko pertsonen % doituia (t. gordina: emakumeak 26,3 eta gizonak 15,8); **19 eta 20.** Pisu gehiegi, gehiegizko pisua edo obesitatea duten 15 urte edo gehiagoko pertsonen % doituia (t. gordina: emakumeak 47,2 eta gizonak 61,6); **21 eta 22.** Pisu gehiegi-gehiiegizko pisua edo obesitatea duten-6tik 9 urtera arteko haurren prebalentzia doituia, OMEk haurren hazkuntzarako emaniko ereduaren arabera (T. gordina: emakumeak 33,5 eta gizonak 31,6); **23 eta 24.** 2 motako diabetesa duten 20 urte edo gehiagoko pertsonen prebalentzia doituia (T. gordina: emakumeak 7,9 eta gizonak 10,1); **25 eta 26.** Kronikoen estrategian lehenetsitako 3 patologia edo gehiago dituzten 65 urteko edo gehiagoko pertsonen % doituia (t. gordina: emakumeak 3,2 eta gizonak 6,1); **27 eta 28.** Azken urtean, multzo hauetako bateko 3 ontzi edo gehiago hartu dituzten pertsonen % doituia: N50B antsiolitikoak, N05C hipnotikoak eta lasaigarriak eta/edo N06A antidepressiboak (t. gordina: emakumeak 19,2 eta gizonak 8,9); **29.** 2 motako diabetesa izanik, azken urtean hemoglobina glikosilatua (HbA1c-a) neurtu duen biztanleriaren %; **30.** Azken urtean hipertentsioa diagnostikatu eta tentsio arteriala (TA) neurtu zaion biztanleriaren %.